

Udalerrri bakoitzeko alderirik bozkatuena

# EH Bilduren indar erakustaldia

Botoetan eta eserlekuetan irabazi du koalizio subiranistak Araban, lehen aldiz, eta duela lau urte baino 14.000 boto gehiago izan ditu. EAJ bigarren da, zazpi ordezkarekin, eta 2020ko ia boto bereberekin.

**ERREDAKZIOA**

Euskal Herriko mapa politikoan hauteskudez hauteskunde ikusten ari den joera aldaketa ezin hobeto islatu du Arabak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan. Gasteiz hiriburutik

hasita, Villabuenan, Lezan, Amurrión, Iruña Okan, Oionen, Bastidan, Arratzua-Ubarrundian, Bernedon, Kanpezun, Urizaharrean, Lagranen edo Añanan EH Bildu nagusitu da. Hartara, zortzi ordezkari lortu dituzte Pello Otzan-

dianoren alderdikideek herrialdean. EAJ bigarren da, zazpi ordezkarekin. Launa lortu dituzte PSE-EEK eta PPK, baina alde dago haien artean. PSE-EEK duela lau urteko emaitzari eutsi dion bitartean, popularrek legebiltzarkide bat gehiago izango dute Eusko Legebiltzarrean. Sumarrek eta Voxek ordezkari bana lortu dute herrialdean; eta Elkarrekin Podemos-ek bi eserleku zituen Araban, baina desagertu egin da.

**Gasteizen, 30.000tik gertu**  
Gasteizen egon dira begi guztiak jarrita hauteskundeetan, herrialdeko biztanleen %75 hiriburuan bizi delako. Koalizio subiranistak ez du huts egin, eta 2023ko udal hauteskundeetan lortutako garaipen historikoa berretsi du. Hala, duela lau urte baino ia 10.000 boto gehiago lortu ditu orain EH Bilduk hiriburuan. 2020an, 20.006 boz lortu zituen, eta botoen %22; orain, berriz, 29.959 boz lortu ditu, botoen %26,6. Hain zuzen, 30.000 botoen langa da alderdi batek 2009tik gainditzen ez zuen kopurua. Oso adierazgarria.

EAJk ere duela lau urte baino boto gehiago eskuratu ditu Gasteizen, baina ia bost puntu egin du behera ehunekoetan, eta lehen indarra izatetik bigarrena izataro igaro da.

Auzoka, EH Bilduk Alde Zaharrean, Abetxukun, Errotan, Aranan, Judimendin, Zabalanean, Salburuan, Adurtzan, Eharin eta Laakuako hainbat hauteskunde barrutitan irabazi du. EAJk, bere aldetik, boto gehienak lortu ditu Lovainan, Desamparadosen, Zabalgunearen zati batean, eta San Martingo Abendaño inguruan. PSE-EEK, berriz, Sansomendiko eta Zaramagako barrutietan irabazi du; eta PP izan da bozkatuena Batan, Mendizorrotzean, Ga-

zalbiden eta Zabalguneko hainbat puntutan.

Hiriburutik kanpo, Arabako hauteskunde mapak bi kolore ditu: berde argia EH Bildurena eta berde iluna EAJrena. Salbuespen bakarra Arabako Errioxako eskualde buruan dago. Guardian, berdearen ordeze, PPren urdina nagusitu da gutxigatik. PPK 248 boto lortu ditu (% 30,77), EAJk 243 (% 30,15) eta Bilduk 216 (% 26,8). Oso urrun dago PSE, 58 botoekin, eta Vox, 26rekin. Bestetik, Arabako Errioxan EAJk galdu duen nagusitasuna azpimarratu behar da, izan ere EH Bildu gailendu da Oionen, Bastidan, Lezan eta Villabuenan.


Añanako Kuadrillan aldaketarik esanguratsuenak Iruña Okan jazo da. Lurraldeko gotorleku sozialista bakanetako bat den arren, apirilak 21eko emaitzen irudia oso bestelakoa da, eta EH Bildu kokatu da buruan. Arabako udalerrri jendetsuenetan bosgarrena da, eta eskualde horretako popu-

latuena. Handitik txikira, Añanan eta Kuartangon ere EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak. Zarranan, aldiz, berdinketa egon da EAJren eta PPren artean.

Gorbeialdea eta Lautada koalizio subiranistaren feudoak direla berretsi dituzte hauteskundeak emaitzek. Burgun eta Dulantzín izan ezik, Lautada osoan irabazi du EH Bilduk, aise. Agurainen, botoen %50 baino gehiago lortu du, eta Asparrenean botoen %67,47. Mendialdean ere azken urteetako aldaketa politiko ikusgarria berretsi dute bozkek, eta subiranistak gailendu dira Kanpezu, Bernedo edo Urizaharrean.

Jeltzaleen eta EH Bilduren lehia oso estua da Aiaraldean. Laudion, EAJk eta EH Bilduk boto kopuru bera lortu dute: 3.327. Amurrión eman da aldaketa; EH Bilduk irabazi du, 2.053 botoekin, 2020an baino 500 bat gehiago. EAJk 1.922 lortu ditu, duela lau urte baino ehun gutxiago.

## Legebiltzarreko ordezkari-tza



Alderdiak	2024	2020	2016	2012
EAJ	27	31	28	27
EH Bildu	27	22	18	21
EH Podemos	0	6	11	0
PSE-EE	12	10	9	18
PP	7	5	9	10
Vox	1	1	0	0
Sumar	1	0	0	0
UPyD	0	0	0	1

## Udalerrietako boto %

● EH Bildu ● EAJ ● PSE-EE  
● PP ● Sumar ● Beste batzuk

